Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

654

79/2010 EBAZPENA, urriaren 25ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzak egindako zenbait hitzarmen, beherago zehaztutakoak, argitaratzea xedatzen duena.

Eusko Jaurlaritzak zenbait hitzarmen sinatu dituenez gero, publikotasun egokia izan dezaten, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Ondoko hitzarmenen testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea:

– Estatistikako Institutu Nazionalarekin eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioarekin lankidetza-hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoan berrikuntza sustatzeko jardueren arloan lankidetzan aritzeko (I. eranskina).

– Zarauzko Udalarekin lankidetza-hitzarmena, aipatutako udalak sustatzen dituen etxebizitzak esleitzeko Etxebideren etxebizitza eskatzaileen Erregistroa erabiltzea (II. eranskina).

– «Sustraia» telebista-programa ekoizteko, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin eta Euskal Irrati Telebistarekin lankidetza-hitzarmena (III. eranskina).

– Ingurumen, Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioarekin lankidetza-hitzarmen espezifikoa, 2010. urterako estatistika arloan (IV. eranskina).

– Funts Bibliografikoaren Katalogoa egiteko Kultura Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean dagoen lankidetza-hitzarmenari 2010erako gehitzen zaion eranskina (V. eranskina).

– Prestakuntzaren arloko hitzarmena, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen artekoa (VI. eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 25a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
M.ª JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

654

RESOLUCIÓN 79/2010, de 25 de octubre, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación de los convenios celebrados por el Gobierno Vasco, que se indican.

Habiéndose suscrito por el Gobierno Vasco varios convenios, y a los efectos de darles la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto de los siguientes convenios:

– Convenio marco de colaboración entre el Ministerio de Ciencia e Innovación y el Instituto Vasco de Finanzas para colaborar en las actuaciones de fomento de la innovación en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que figura como anexo I.

– Convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Zarautz para la utilización del Registro de Solicitantes de Vivienda de Etxebide en la adjudicación de promociones de viviendas del citado ayuntamiento, que figura como anexo II.

– Convenio de colaboración con las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca para la producción televisiva del programa «Sustraia», que figura como anexo III.

– Convenio específico de colaboración con el Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino en materia de estadística, correspondiente al año 2010, que figura como anexo IV.

– Anexo para el año 2010 al convenio de colaboración con el Ministerio de Cultura para la realización del Catálogo Colectivo del Patrimonio Bibliográfico, que figura como anexo V.

– Convenio entre la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y el Instituto Vasco de Administración Pública en materia de Formación, que figura como anexo VI.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de octubre de 2010.

La Directora de la Secretaría del Gobierno
y de Relaciones con el Parlamento,
M.ª JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK URRIAREN 25EAN EMANDAKO 79/2010 EBAZPENAREN I. ERANSKINA

ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREKIN ETA ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOAREKIN LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BERRIKUNTZA SUSTATZEKO JARDUEREN ARLOAN LANKIDETZAN ARITZEKO

Madrilen, 2010eko uztailaren, 5ean.

BILDU DIRA:

Alde batetik Cristina Garmendia Mendizábal andrea, Zientzia eta Berrikuntzako ministroa, apirilaren 14ko 436/2008 Errege Dekretuaren bitartez izendatu zena. Estatuaren Administrazio Nagusiaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen 13.3 artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera jardun du.

Beste alde batetik Carlos Aguirre Arana jauna, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasuneko sailburua, maiatzaren 8ko 7/2009 Dekretuaren bitartez izendatu zena. Euskal Finantza Erakundearen izen eta ordezkaritzan jardun du, bertako Administrazio Kontseiluko burua den aldetik, erakundearen estatutuak onetsi zituen abenduaren 23ko 218/2008 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Alderdi biek, duten ordezkaritzan, hitzemateko gaitasuna aitortu diote elkarri eta, horretarako, honakoa

AZALDU DUTE:

Lehenengoa.– Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak eta Euskal Finantza Erakundeak (aurrerantzean Erakundea) lankidetzan aritu nahi dute, eta berrikuntza alorreko jarduerak koordinatu, helburu hauek lortzearren: jakintza areagotzea sustatzea, enpresen berrikuntza-maila handitzea, herritarren bizi-kalitatea hobetzea eta enpresen lehiakortasuna handitzea.

Bigarrena.– Aipatutako helburu horiek lortzeko, berrikuntza-jarduerak sustatzeko ekintzak abiarazi dituzte alderdi biek, bai Administrazio Zentralak eta bai Eusko Jaurlaritzaren Administrazioak ere.

Alderdi biek uste dute beharrezko masa kritikoen sorkuntza bultzatu behar dela oro har Espainiako ikerketa eta berrikuntzak eta bereziki Euskal Autonomia Erkidegokoak dituen erronkei aurre egiteko; ja-

ANEXO I A LA RESOLUCIÓN 79/2010, DE 25 DE OCTUBRE, DE LA DIRECTORA DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

CONVENIO MARCO DE COLABORACIÓN ENTRE EL MINISTERIO DE CIENCIA E INNOVACIÓN Y EL INSTITUTO VASCO DE FINANZAS PARA COLABORAR EN LA ACTUACIONES DE FOMENTO DE LA INNOVACIÓN EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

En Madrid, a 5 de julio de 2010.

REUNIDOS:

De una parte la Sra. D.ª Cristina Garmendia Mendizábal, Ministra de Ciencia e Innovación, nombrada por Real Decreto 436/2008, de 14 de abril, actuando en virtud del artículo 13.3 de la Ley 6/1997, de 14 de abril, de Organización y Funcionamiento de la Administración General del Estado y la disposición adicional decimotercera de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del procedimiento Administrativo Común.

De otra parte, el Sr. D. Carlos Aguirre Arana, Consejero de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco, en virtud de su nombramiento por Decreto 7/2009, de 8 de mayo, actuando en nombre y representación del Instituto Vasco de Finanzas, en su calidad de Presidente del Consejo de Administración del mismo, en virtud del artículo 6 del Decreto 218/2008, de 23 de diciembre, por el que se aprueban los Estatutos del Instituto.

Ambas partes, en la representación que ostentan, se reconocen mutua capacidad para obligarse y a tal efecto

EXPONEN:

Primero.– Que el Ministerio de Ciencia e Innovación (en adelante MICINN) y Euskal Finantza Erakundea / Instituto Vasco de Finanzas (en adelante el Instituto) desean cooperar y coordinar sus actuaciones en materia de innovación con el objetivo común de promover el avance del conocimiento, elevar el nivel de innovación de las empresas, mejorar la calidad de vida de los ciudadanos e incrementar la competitividad empresarial.

Segundo.– Que para la consecución de estos objetivos, ambas Partes ponen en marcha actuaciones de fomento de actividades de innovación tanto desde la Administración Central, como desde la Administración del Gobierno Vasco.

Que ambas partes coinciden en la necesidad de potenciar la creación de las masas críticas necesarias para afrontar los desafíos que la investigación y la innovación española en general y la vasca en particular

kintzaren agenteak nazioartekotzea laguntzeko, batez ere Ikerketaren Europako Esparruaren testuinguruan; enpresa-sektorerako transferentzia teknologikoa hobetzeko, eta zientzia- eta teknologia-hedapena sustatzeko.

Hirugarrena. Konstituzioaren 149.1.15 artikuluak Estatuari esleitzen dio ikerkuntza zientifiko eta teknikoa bultzatu eta koordinazio orokorra egiteko eskumena.

Laugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio zientzia- eta teknika-ikerketa egitea, Estatuarekin koordinaturik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 16. atalak (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa) alor horretan ematen dizkion eskumenen arabera.

Bosgarrena.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio orokorrak eta bere mendean edo berari lotuta dauden herri-erakundeek elkarri laguntzeko hitzarmenak izenpetu ditzakete autonomia-erkidegoetako dagokien organoekin, beti ere bakoitzaren eskumenen eremuan. Beste alde batetik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 4.1.c) artikuluak lege horren aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu Estatuaren Administrazio Nagusiak eta autonomia-erkidegoek egindako lankidetza-hitzarmenak.

Seigarrena.– Alderdiak lankidetzan aritu izan dira zientziarekin eta teknologiarekin lotutako hainbat alderditan, alderdiak ados daudela sinatutako hitzarmenek adierazten duten moduan. Alderdi biek uste dute interesgarria dela ikerketa, garapen eta berrikuntza alorrean lankidetzarako baterako jarduerak bultzatzea eta koordinazioa biziagotzea, interes komunaren onerako, dituzten helburuak hobeto betetzen lagunduko duelakoan.

Zazpigarrena.– Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak eta Erakundeak autonomia-erkidegoaren garapen ekonomikoaren beharrizanei erantzuten dieten berrikuntza-ekintzak aztertu dituzte, eta balio erantsi handiko produktu eta zerbitzuen ikerketaren emaitzak aldatzeko gaitasun handiena dutenak bultzatu behar direla ondorioztatu dute.

Zortzigarrena.– Hitzarmen hau duela gutxi sortu den Berrikuntzaren Idazkaritza Nagusiak garatutako Berrikuntzaren Estatuko Estrategiaren eremuan proposatu da, zehatz-mehatz bertako laugarren ardatzaren eremuan, bere helburua berrikuntza ekoizpen-sare guztira hedatzea dela, lankidetza estua edukiz estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean, lehia-gatazka guztiak gainditzuz.

Zientzia- eta teknika-azpiegituren bultzada hori gauzatzeko, bai Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa eta bai Erakundea ere ados daude lankidetza-

tiene planteados; propiciar la internacionalización de sus correspondientes agentes del conocimiento, en especial en el contexto del Espacio Europeo de Investigación; mejorar la transferencia tecnológica al sector empresarial y fomentar la difusión científica y tecnológica.

Tercero.– Que el artículo 149.1.15 de la Constitución, atribuye al Estado la competencia sobre el fomento y la coordinación general de la investigación científica y técnica.

Cuarto.– Que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco la investigación científica y técnica en coordinación con el Estado, en virtud de las competencias que en dicha materia le confiere el apartado 16 del artículo 10 de su Estatuto de Autonomía, Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre.

Quinto.– Que el artículo 6.1 la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, dispone que la Administración General y los Organismos Públicos vinculados o dependientes de la misma podrán celebrar convenios de colaboración con los órganos correspondientes de las Administraciones de las Comunidades Autónomas en el ámbito de sus respectivas competencias. Por otra parte el artículo 4.1.c) de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público dispone la exclusión de su ámbito de aplicación de los convenios de colaboración que celebre la Administración General del Estado y las Comunidades Autónomas.

Sexto.– Que las partes han venido cooperando en diferentes aspectos relacionados con la ciencia y la tecnología como lo atestiguan los convenios firmados de mutuo acuerdo. Ambas partes consideran de interés intensificar la coordinación e impulsar actuaciones conjuntas de cooperación de Investigación, Desarrollo e Innovación en áreas de interés común, por entender que ello contribuye al mejor cumplimiento de sus respectivos objetivos.

Séptimo.– Que el MICINN y el Instituto, han analizado las acciones de innovación que responden a las necesidades de desarrollo económico de la Comunidad Autónoma y consideran que deben ser objeto de impulso aquellos con mayor capacidad de transformar los resultados de la investigación en productos y servicios de alto valor añadido.

Octavo.– Este convenio se propone en el marco de la Estrategia Estatal de Innovación que desarrolla la recientemente creada Secretaría General de Innovación, más en concreto en su cuarto eje, cuyo objetivo es logar la difusión de la innovación a todo el tejido productivo, en estrecha colaboración entre Estado y las Comunidades Autónomas, superando todo conflicto competencial.

Para instrumentar ese impulso de las infraestructuras científico técnicas, tanto el MICINN, como el Instituto, están de acuerdo en suscribir el presente

hitzarmen hau sinatzeko, jarraian azaldu diren klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENENGO KAPITULUA
HITZARMENAREN XEDEA ETA HELBURUA

Lehenengoa.– Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen xedea da alderdien arteko lankidetza-eremua ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoan berrikuntza sustatzeko.

Hitzarmenaren helburua da 1. eranskinean islatutako jarduera-programa garatzea, hiru jarduera-programa hauek aipatzen direla:

a) Zientzia- eta teknika-azpiegiturak sustatzea teknologia-parkeetan.

b) Proiektu bereziak babestea.

c) Enpresa estrategikoak babesteko ekintzak.

Bigarrena.– Alderdien betebeharrak.

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak hitzarmen honen eremuan egin beharreko jarduerak finantzatu beharko ditu, kreditu moduan, hitzarmen honen hirugarren kapituluan ezarritakoari jarraituz.

Erakundeak betebehar hauek izango ditu:

a) Hitzarmen honen 1. eranskinean azaldutako berrikuntzako jarduera-programa egiteko beharrezko jarduera guztiak garatzea, bere kabuz edo bere mendeko agentzia edo erakunderen baten bitartez egin ahal izango duela. Proiektu horiek urtebeteko epean egingo dira gehienez, bidezko igorpenak jasotzen direnetik aurrera zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, zortzigarren azalpenean adierazitakoari jarraituz, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak sustatzen duen Berrikuntzaren Estatuko Estrategiaren laugarren ardatzean garatuko dira aurreikusitako jarduerak.

b) Zientzia eta Berrikuntza Ministerioan egiaztatzea kredituaren xedea bete egin dela, kredituaren helburu ere badiren jarduerak egin direla eta eman diren funts publikoak behar bezala erabili direla, urte natural bakoitzeko lehenengo sei hilabeteen barruan, aurreko urtean egindako jarduerei dagokienez.

c) Koordinatutako jardueren aukerak sustatu eta jakinaraztea, esaterako hitzarmen honi dagozkionak, Eusko Jaurlaritzaren Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuaren (SPRI) iritziz egokienak diren foroetan, bultzatzeko asmoz.

convenio de colaboración de acuerdo con las siguientes

CLÁUSULAS

CAPÍTULO UNO
OBJETO Y FINALIDAD DEL CONVENIO

Primera.– Objeto del convenio.

La finalidad del presente convenio es fijar el marco de colaboración entre las partes para el fomento de la innovación en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El objeto del convenio es el desarrollo del programa de actuaciones contemplado en el anexo 1 y que se refiere a los tres siguientes programas de actuación:

a) Fomento de Infraestructuras Científico-Técnicas en Parques Tecnológicos.

b) Apoyo a Proyectos Singulares.

c) Acciones de apoyo a empresas estratégicas.

Segunda.– Obligaciones de las partes.

El MICINN se obliga a financiar la ejecución de las actividades a realizar en el marco del presente convenio en forma de crédito, de acuerdo con lo estipulado en el Capítulo tres de este convenio.

El Instituto se obliga a:

a) Desarrollar todas las actividades que resulten necesarias para la ejecución del programa de actuaciones de innovación incluidas en el anexo 1 a este convenio pudiendo realizarlas por sí misma o a través de alguna de las agencias o entidades de ella dependientes. Dichos proyectos se ejecutarán en el plazo máximo de un año desde que se reciban los libramientos correspondientes.

En todo caso, de acuerdo con el Expositivo Octavo, las actuaciones previstas se desarrollan en el cuarto eje de la Estrategia Estatal de Innovación que promueve el MICINN.

b) Acreditar ante el MICINN el cumplimiento de la finalidad del crédito, la ejecución de las actividades para las que también se concede y la correcta utilización de los fondos públicos que se han entregado, dentro de los seis primeros meses de cada año natural respecto de las realizadas en el año anterior.

c) Promocionar y dar a conocer las posibilidades de actuaciones coordinadas, como las correspondientes a este Convenio, en los foros más adecuados según criterio de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial (SPRI) del Gobierno Vasco, al objeto de promoverlas.

BIGARREN KAPITULUA
HITZARMENAREN FUNTZIONAMENDU ETA GARAPENA

Hirugarrena.– Jarraipen-batzorde paritarioa.

1.– Hitzarmen honen jarraipena zortzi kideko batzorde paritario batek egingo du. Bertako lau kide Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren ordezkaritzan izendatuko dira, eta beste lau Erakundeko buruak izendatuko ditu.

2.– Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren ordezkarietako bat Gobernuaren EAEko Ordezkaritzak izendatuko du.

3.– Hitzarmena sinatu ostean eta gehienez hilabeteko epean, sinatzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, batzordeko ordezkariak izendatuko dituzte alderdiek, eta beste alderdiari jakinarazi beharko dizkiote. Batzordeko kideak ordezteko, nahikoa izango da batzarra egin aurretik beste alderdiari jakinaraztea.

4.– Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren ordezkarietako bat izango da batzordeburua, eta Erakundearen ordezkari batek egingo ditu idazkari lanak.

5.– Idazkariak egingo du ohiko deialdia, buruak aginduta, eta batzarra egin baino hiru egun lehenago, gutxienez, jakinaraziko da gai-zerrenda.

6.– Batzordea behar bezala eratuta dagoela ulertuko da alderdi biak daudenean, kide kopuru berarekin, eta kide horietako bat burua edo berak eskuordetutako pertsona denean.

7.– Erabakiak aho batez hartuko dira.

8.– Batzordeak, salbuespen moduan, iritzi espezializatua eskatu ahal izango du, gaiaren izaeraren ondorioz beharrezkoa denean. Iritzi hori ez da loteslea izango.

9.– Honakoak izango dira Batzordearen zereginak:

a) Eginda dauden eta egiten dabiltzan jarduera eta ekintzen jarraipena egitea, behar bezala egiten diren, ezarritako mugen barruan mantentzen diren eta hitzarmen honetan ezarritako helburuak lortzen diren egiaztatzearren.

b) Hitzarmenaren klausulak aplikatu eta interpretatzean sor litezkeen zalantza eta eztabaidak, zein hitzarmena gauzatzetik eratorritako gainerako guztiak, ebaztea, betiere indarrean dauden legeen arabera.

c) Jardueren jarraipena egiteko arrazoizko informazioa biltzea, bai zientzia- eta teknika-alderdiei dagokienez, bai eta ekonomia- eta antolakuntza-alderdiei dagokienez ere. Erakundearen ardura izango da informazioa erabilgarri egongo dela bermatzea.

d) Jarduerak egitean atzerapenik izan bada, Jarraipen Batzordeak, atzerapen horien zergatiak justifikatzeko memoria eta jarduera-egutegi berriaren propo-

CAPÍTULO DOS
FUNCIONAMIENTO Y DESARROLLO DEL CONVENIO

Tercera.– Comisión paritaria de Seguimiento.

1.– El seguimiento del presente convenio corresponde a una Comisión paritaria de ocho miembros, cuatro nombrados en representación del MICINN y cuatro designados por el Presidente del Instituto.

2.– Uno de los representantes del MICINN será designado por la Delegación del Gobierno en el País Vasco.

3.– Una vez firmado el convenio y en el plazo máximo de un mes desde la fecha de dicha firma, cada Parte nombrará a sus comisionados y lo comunicará a la otra parte. Para la sustitución de los miembros de la Comisión bastará con la comunicación a la otra parte, previa a la celebración de la reunión.

4.– Uno de los representantes del MICINN será el Presidente de la Comisión, actuando como secretario un representante del Instituto.

5.– La convocatoria ordinaria se realizará por el Secretario por indicación del Presidente, comunicándose el orden del día con un mínimo de un mes de antelación a la fecha de la reunión.

6.– Se considerará constituida la Comisión cuando estén presentes las dos partes y en número igual de asistentes, siendo una de ellas el Presidente o persona en quien delegue.

7.– Los acuerdos se adoptarán por unanimidad.

8.– La Comisión podrá recabar excepcionalmente una opinión especializada en aquellos casos en los que sea necesario por la naturaleza del tema. Esta opinión no será vinculante.

9.– Esta Comisión tendrá como funciones:

a) Efectuar el seguimiento de las actuaciones y actividades realizadas y en curso para comprobar que progresan adecuadamente, se mantienen en los límites establecidos y se alcanzan los objetivos programados en el presente convenio.

b) Resolver las dudas y controversias que pudieran surgir en la aplicación e interpretación de sus cláusulas, siempre dentro de la legalidad vigente, y cualquiera otra que se derive de la ejecución del convenio y en el espíritu de éste.

c) Recabar la información que sea razonable para el seguimiento de las actuaciones tanto en los aspectos científicos y técnicos como en los económicos y organizativos. Corresponde al Instituto garantizar la disponibilidad de la información.

d) En caso de que se hayan producido retrasos en la ejecución de las actuaciones, la Comisión de Seguimiento, previa recepción y análisis de la Memo-

samena jaso eta aztertu ondoren, jarduera amaitzeko beste data bat proposatu ahal izango dio Zientzia eta Berrikuntza Ministerioari.

10.– Batzordearen funtzionamendu eta jarduerei buruzko klausula honetan azaldu ez denari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean kide anitzeko organoei buruz xedatutakoa bete beharko da.

Laugarrena.– Kredituaren justifikazioa eta urteko memoria.

Erakundeak jasotako finantzaketaren pentzura egindako jardueren justifikazioa aurkeztu beharko du, urte natural bakoitzeko lehenengo sei hilabeteen barruan, aurreko urtean egindako jarduerei dagokienez, bigarren klausulan aurreikusitakoaren arabera. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioan aurkeztu beharko da.

Agiri hauek ere aurkeztuko dira:

– Egindako jarduerak deskribatzen dituen memoria.

– Egindako gastuen memoria ekonomikoa.

– Gastu guztiak eta dagokion ordainketa justifikatzeko agirien zerrenda zehatza, non dauden adieraziz.

Gainera, hitzarmenean azaldutako jardueren bilakaerari buruzko urteko memoria aurkeztuko du Erakundeak Jarraipen Batzordean, hori gauzatzeko aurreikusitako epea amaitu arte. Galarazten duen inguruabar objektiborik egon ezean, urte bakoitzeko uztailaren 1a baino lehen aurkeztuko da memoria, Batzordeak memoria aztertzeko denbora nahikoa izan dezan.

Adierazi den urteko memoria jaso eta hitzarmenaren helburuak betetzeari egokitzen zaiola egiaztatu ondoren, Jarraipen Batzordeak aldeko txostena bidaliko dio Zientzia eta Berrikuntza Ministerioari, hurrengo urterokoa igor dezan. Hala ere, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak, ordaintzen duen organoa denez, justifikazio-agiriak egiaztatzeko jarduerak egin ahal izango ditu.

Kreditua ematen duen organoari, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiari eta Kontuen Epaitegiari aplikatu beharreko legeetan aurreikusitakoei dagozkien finantza-kontrolerako eta egiaztapenerako jarduerak egingo zaizkie Erakundeari eta ekintzak egiteko erabil ditzakeen entitateei, hitzarmen honi lotuta, eta horretarako eskatzen duten informazio guztia eman beharko diete.

ria justificativa de las causas de dichos retrasos y la propuesta de nuevo calendario de actuaciones, podrá proponer al MICINN la nueva fecha de finalización.

10.– En lo no contemplado por esta cláusula, sobre el funcionamiento y actuaciones de la Comisión, se estará a lo dispuesto por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común sobre órganos colegiados.

Cuarta.– Justificación del crédito y Memoria Anual.

El Instituto se obliga a presentar la justificación de las actuaciones realizadas con cargo a la financiación recibida, dentro de los seis primeros meses de cada año natural respecto de las realizadas en el año anterior según lo previsto en la cláusula segunda. Dicha presentación se entregará en el MICINN.

Se acompañará la siguiente documentación:

– Memoria descriptiva de las actividades realizadas.

– Memoria económica de los gastos efectuados.

– Relación detallada de los documentos justificativos de cada gasto y del pago correspondiente, indicando su lugar de custodia.

Adicionalmente, el Instituto presentará ante la Comisión de Seguimiento una memoria anual sobre la evolución de las actividades contempladas en el convenio hasta que finalice el periodo previsto para su ejecución. Salvo que haya circunstancias objetivas que lo impidan, la Memoria se presentará antes del 1 de julio de cada año, de manera que se pueda reunir la Comisión con tiempo útil para proceder al examen de la misma.

Una vez recibida la memoria anual indicada y comprobada su adecuación al cumplimiento de los fines del convenio por la Comisión de Seguimiento, ésta emitirá informe favorable al MICINN para el libramiento de la siguiente anualidad sin perjuicio de las actuaciones de verificación sobre la documentación justificativa que correspondan al MICINN como órgano concedente.

El Instituto y las entidades mediante las que se pudieran ejecutar las acciones, deberán someterse, en relación con este convenio, a las actuaciones de comprobación y de control financiero que corresponden al órgano concedente del crédito, a la Intervención General de la Administración del Estado, y a las previstas en la legislación aplicable del Tribunal de Cuentas, al que facilitarán cuanta información sea requerida al efecto.

HIRUGARREN KAPITULUA
HITZARMENARI LOTUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA NAZIONALA

Bosgarrena.– Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak 150 milioi euroko kredituarekin finantzatuko ditu hitzarmen honi lotutako jarduerak, egutegi honen arabera ordainduko direla:

Urtea	Milioika eurotan
2010	80
2011	40
2012	30
Guztira	150

Kredituaren interes-tasa % 1,232koa izango da (Euribor, Espainiako Bankuaren 2010eko otsailaren 1eko ebazpenaren arabera), gabealdia 5 urtekoa, kreditua eman eta hurrengo urtetik aurrera zenbatzen hasita, eta itzultzeko epea 10 urtekoa.

Seigarrena.– Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren kredituen transferentzia.

Estatuaren 2010erako Aurrekontu Orokorren 21.07.467C.821.15 aurrekontu-azalpenaren pentzura egingo da funtsen transferentzia.

Ekarpen horrek ezin izango du murriztu autonomia-erkidegoak egitea aurreikusita duen berrikuntzarako zuzkidura.

Hitzarmena sinatzean egingo da kredituaren zenbatekoaren lehenengo igorpena. Hurrengo igorpenak aurkeztutako jardueren urteko memoria onetsi duen Jarraipen Batzordea egin ondorengo hilean egingo dira, aurreko klausulan adierazitako ekitaldietan, Euskal Finantza Erakundearen kontura egindako banku-transferentziaren bitartez (zk.: 2095 0611 01 9109712161).

Zazpigarrena.– Kredituak itzultzea.

Erakundeak konpromisoa hartzen du kreditua Altxor Publikoari itzultzeko, abenduaren 26ko EHA/3967/2007 Aginduak (2008ko urtarrilaren 8ko BOE) aldatu zuen Ekonomia eta Ogasuneko Ordezkaritzek bildutako zergazkoak ez diren diru-sarrerak eta Gordailuen Kutxa Orokorrean eta bere sukurtsaletan esku-dirutan egindako diru-sarrerak biltzeko prozedura berria arautzen duen abenduaren 29ko PRE/3662/2003 Aginduan (abenduaren 31ko BOE) xedatutakoaren arabera, edo hori ordeztu dezakeen araudiaren arabera, «Zergazkoak ez diren diru-sarrerak. Itxitako ekitaldiak, finantza-eragiketak» izeneko azalpenean, erreferentzia bat eginez Zientzia eta Berrikuntza Ministerioari eta hitzarmen honi.

Kredituaren itzulketa eta bere interesak ordaintzeko, 2. eranskinean azaldu den amortizazio-koadroari

CAPÍTULO TRES
FINANCIACIÓN NACIONAL DE LAS ACTIVIDADES SUJETAS AL CONVENIO

Quinta.– El MICINN financiará las actividades sujetas a este Convenio con un crédito de 150 millones de euros que serán desembolsados con el siguiente calendario:

Año	Millones de euros
2010	80
2011	40
2012	30
Total	150

El crédito tendrá un tipo de interés del 1,232% (Euribor según Resolución de 1 de febrero de 2010 del Banco de España), un periodo de carencia de 5 años desde el siguiente al de concesión del crédito y un periodo de reembolso de 10 años.

Sexta.– Transferencia de los créditos del MICINN.

La transferencia de fondos se realizará con cargo al concepto presupuestario 21.07.467C.821.15 de los Presupuestos Generales del Estado para 2010.

Esta aportación no podrá suponer una disminución de la dotación para innovación que tenga previsto realizar la CC.AA.

El primer libramiento del importe del crédito se realizará a la firma del convenio. Los siguientes libramientos se efectuarán dentro del mes siguiente a la celebración de la Comisión de Seguimiento en la que se haya aprobado la memoria anual de actividades presentadas, en los ejercicios señalados en la cláusula anterior, mediante transferencia bancaria a la cuenta de Euskal Finantza Erakundea / Instituto Vasco de Finanzas n.º 2095 0611 01 9109712161.

Séptima.– Reembolso de los créditos.

El Instituto se obliga a reembolsar el crédito al Tesoro Público, conforme a lo dispuesto en la Orden PRE/3662/2003, de 29 de diciembre (BOE de 31 de diciembre), por la que se regula un nuevo procedimiento de recaudación de los ingresos no tributarios recaudados por las Delegaciones de Economía y Hacienda y de los ingresos en efectivo en las sucursales de la Caja General de Depósitos encuadradas en las mismas, modificada por la Orden EHA/3967/2007, de 26 diciembre (BOE de 8 de enero de 2008), o a la normativa que la pueda sustituir, en el concepto «Ingresos no tributarios. Ejercicios cerrados operaciones financieras», y con una referencia al MICINN y a éste convenio.

El pago de la devolución del crédito y sus intereses se realizará según el cuadro de amortización que

jarraituko zaio, bertan adierazitako urteko urtarrilean ordaindu beharko direla.

Zortzigarrena. Kredituak berandutza-interesekin ordaintzea.

1.– Kredituak itzultzeko beharra betetzen ez bada, dagozkion berandutza-interesak sortuko dira.

2.– Jarraian adierazitako kasuetan aurretiaz itzuliko dira kreditua eta berandutza-interesak (funtsak eman zirenetik guztiz itzuli arte kalkulatuta):

– Finantzaketa ez denean erabili hitzarmen honetan eta 1. eranskinean aurreikusitako helburu eta jardueretarako.

– Hitzarmenean aurreikusitakoa bete ez denean, justifikatutako zergatirik gabe, horretarako ezarritako epea eta, hala badagokio, aplika litezkeen luzapenak, amaitu ondoren.

LAUGARREN KAPITULUA
AZKEN KLAUSULAK

Bederatzigarrena.– Indarraldia eta suntsiarazpena.

1.– Alderdi biek sinatzen dutenean sartuko da indarrean hitzarmen hau, eta bertan aurreikusitako jarduerak amaitu arte egongo da indarrean, alderdien betebeharrak amaitu arte eta, nolanahi ere, kreditua guztiz itzuli arte.

2.– Hitzarmen hau aurreikusitako epea amaitu baino lehen suntsiarazi ahal izango da, alderdi biak ados badaude edo hitzarmenean adierazitakoa bete ez bada. Hitzarmena suntsiaraztekotan, abian dauden jarduerei sortuko zaizkien eraginak, bete ez diren zenbatekoen itzulketa eta interesen sortzapena erabaki beharko dituzte alderdiek.

Hamargarrena.– Araubide juridikoa eta eztabaidak ebaztea.

1.– Hitzarmen hau administratiboa da eta, bertan xedatu ez denari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa bete beharko da. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 4.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren aplikazio-eremutik kanpo geratzen da. Hala eta guztiz ere, bertako printzipioak aplikatu ahal izango dira sor litezkeen zalantza eta hutsuneak ebazteko, lege horren 4.2 artikuluan ezarrita dagoen bezala. Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren babespean egin da.

2.– Hitzarmen hau interpretatu eta betetzeari buruz sor litezkeen eztabaidak alderdiak ados ipinita se adjunta como anexo 2, siendo la fecha de pago para realizarlos el mes de enero del año indicado en el mismo.

Octava.– Reintegro de los créditos con intereses de demora.

1.– El incumplimiento del reintegro de los créditos dará lugar a los correspondientes intereses de demora.

2.– Se producirá la devolución anticipada del crédito, junto con los intereses de demora, calculados desde la entrega de los fondos hasta su completa devolución en los siguientes casos:

– Cuando la financiación se aplique a finalidades y actuaciones distintas de las previstas en este convenio y en su anexo 1.

– Cuando no se ejecute lo previsto en el convenio por causas no justificadas, habiendo finalizado el periodo de su ejecución y en su caso, las eventuales prórrogas que fuesen aplicables.

CAPÍTULO CUATRO
CLÁUSULAS FINALES

Novena.– Vigencia y resolución.

1.– El presente convenio entrará en vigor a su firma por ambas Partes y su vigencia se extenderá hasta la finalización de las actuaciones previstas en el mismo, mientras subsistan obligaciones de las partes y, en todo caso, hasta el reembolso total del crédito.

2.– Podrá resolverse este convenio antes del plazo previsto por mutuo acuerdo de las partes o por incumplimiento del propio convenio. Las partes deberán acordar, en caso de resolución, sus efectos sobre las actividades en curso, la devolución de las cantidades no ejecutadas y el devengo de intereses.

Décima.– Régimen jurídico y resolución de controversias.

1.– El presente convenio tiene naturaleza administrativa, y en lo no dispuesto en el mismo, se estará a lo que dispone la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Conforme a lo dispuesto en el artículo 4.1.c) de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, queda excluido del ámbito de aplicación de dicha Ley, sin perjuicio de la aplicación de sus principios para resolver las dudas y lagunas que pudieran plantearse, tal como se establece en el artículo 4.2 de la citada Ley. Y se realiza al amparo de lo establecido en la disposición adicional decimotercera de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– La resolución de las controversias que pudieran plantearse sobre la interpretación y ejecución del

ebatzi beharko dira, Jarraipen Batzordearen baitan. Akordiorik lortu ezin bada, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan xedatutakoaren arabera ebatzi beharko dira eztabaidak, edo ordena zibileko epaitegi edo auzitegietan, auzitan den gaiaren izaeraren arabera.

Hamaikagarrena.– Hitzarmenaren publizitatea.

1.– Erakundeak hitzarmen honetan adierazitako jarduerekin zerikusia duten edizio-, informazio- edo sustapen-jarduera guztietan agerrarazi beharko du Zientzia eta Berrikuntza Ministerioarekin lankidetzan egindakoa dela.

2.– Urtean behin prentsaurreko bat egingo da, alderdi bakoitzeko arduradun nagusiek hitzarmen honen garapenaren berri emateko.

3.– Hitzarmen hau Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Eta ados daudela adierazteko, alderdi biek hitzarmen hau sinatu dute, ale bitan eta ondore bakarrerako, goiburukoan adierazitako egun eta lekuan.

Zientzia eta Berrikuntzako ministroa,
CRISTINA GARMENDIA MENDIZÁBAL.

Euskal Finantza Erakundeko burua eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

presente Convenio deberán solventarse por mutuo acuerdo de las partes, en el seno de la Comisión de Seguimiento. Si no pudiera alcanzarse dicho acuerdo, las posibles controversias deberán ser resueltas de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa o en los juzgados y tribunales del orden civil según la naturaleza de la cuestión litigiosa.

Undécima.– Publicidad del convenio.

1.– Se deberá hacer constar por el Instituto la colaboración del MICINN, en todas las actividades editoriales, informativas o promocionales en relación con las actuaciones contempladas en este convenio.

2.– Una vez al año tendrá lugar una rueda de prensa en la que los máximos responsables de cada una de las partes dará cuenta del desarrollo de este convenio.

3.– El presente convenio será publicado en el Boletín Oficial del Estado y en el Boletín Oficial del País Vasco.

Y en prueba de conformidad, ambas Partes firman el presente convenio en duplicado ejemplar y a un solo efecto en la fecha y lugar mencionados en el encabezamiento.

La Ministra de Ciencia e Innovación,
CRISTINA GARMENDIA MENDIZÁBAL.

El Presidente del Instituto Vasco de Finanzas y Consejero de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ZIENTZIA- ETA TEKNOLOGIA-INBERTSIOAK EGITEKO PROGRAMA

Bilbao, 2010eko ekainaren 30a.

I.– Aurrekariak.

Euskal Autonomia Erkidegoan (Bizkaia, Donostia eta Araba) dagoen Teknologia Parkeen Sarea, Euskal Sektore Publikoak sustatu zuena bere industria- eta teknologia-politikaren eremuaren barruan, horren zerbitzurako tresna gisa sortu zen, ekimena eta industria-inbertsioa piztu eta sustatzeko helburu sozialarekin. Horretarako, goi-teknologiako enpresak ezartzeko moduko azpiegitura sortu zen, bai eta oso berritzaileak diren industria- eta zerbitzu-jarduerak ere, eta, aldi berean, teknologia eta jakintzen transferentzia bultzatu zen unibertsitatearen, teknologia-zentroen eta enpresen artean.

ANEXO I

PROGRAMA PARA LA REALIZACIÓN DE INVERSIONES CIENTÍFICO-TECNOLÓGICAS EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

Bilbao, a 30 de junio de 2010.

I.– Antecedentes.

La Red de Parque Tecnológicos existentes en la Comunidad Autónoma del país Vasco, Bizkaia, Donostia-San Sebastián y Álava, promocionados por el Sector Público Vasco dentro del marco de su Política Industrial y Tecnológica, se crearon como instrumentos al servicio de la misma, con el objeto social de estimular y promover la iniciativa y la inversión industrial, mediante la creación de una infraestructura que posibilite la implantación de Empresas de Alta Tecnología, junto con actividades industriales y de servicios de alto contenido innovador, y al mismo tiempo, potenciar la transferencia de tecnología y de conocimiento entre la Universidad, los Centros Tecnológicos y las Empresas.

Aipatutako helburu soziala oinarri hartuta, teknologia-parkeetan sortutako jarduerak behar bezala mugatuta daude gauzatu nahi dituzten xede, ikuspegi, eta funtsezko balioen definizioan.

Gauzak horrela, parkeen estrategiaren azterketa berrienaren arabera, Xedea Euskadiko teknologia- eta berrikuntza-garapenean laguntza erabakigarria ematea da, modu iraunkorrean, jakintzen trukea eta teknologiaren transferentzia erraztuz, enpresa berritzaileak sortu eta haztea sustatuz, eta kalitate handiko gune eta instalazioak eta balio erantsiko zerbitzuak eskainiz.

Ikuspegiari dagokionez, Euskadiko enpresa-berrikuntzaren eta teknologia-garapenaren erreferente gisa eta nazioarteko eredu gisa sendotzea da.

Horrela, bada, berrikuntzaren abangoardia izan behar dira parkeak, sareetan parte hartuz eta teknologia eta jakintzaren transferentzia sustatuz, nahitaezko erreferente izaten jarraitzeko teknologikoki aurreratuta dauden enpresak ezarri eta garatzean eta, ondorioz, etorkizuneko erreferentzia izaten jarraitu ahal izateko, enpresen lehia-abantailak handitzen laguntzeko eta gizarteari balioak emateko.

Hori guztia lortzeko, parkeek funtsezko balioak proiektatu nahi dituzte, honakoak, esaterako: berrikuntza, bezeroen orientabidea, elkarlana/lankidetza, iraunkortasuna, etengabeko berrikuntza eta gizarte-konpromisoa.

Jarduerak direla eta, teknologia-parkeak aldatu egin dira sortu zirenetik. Arreta gaur egungo xedean ipini aurretik, berrikuntza-tresna gisa sortu ziren Gobernuaren industria-politikaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sarea dibertsifikatzearren. Horrela lortu nahi zen, sektore tradizionalak alde batera utzi gabe, goi-teknologiako enpresak ezartzea sustatu eta erraztea, etorkizun dinamikoagoa dutelako, horretarako industriaren gaitasun tradizionala eta unibertsitatearen eta teknologia-zentroen gaitasuna uztartuz, bi ikuspegi bilatzearren:

– Botere endogenoa garatzea.

– Kanpoko enpresak erakartzea.

Lehenengo etapa:

